

presupuestos - aurrekontuak




Memoria politikoa

Memoria Política

**DURANGOKO UDALA /
AYUNTAMIENTO DE DURANGO**

2023



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

2023eko AURREKONTUEN MEMORIA POLITIKOA

Sarrera politikoa


Durango Udalaren aurrekontuek, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak 2019-2023 legegintzaldirako osatutako Gobernu Taldeak hartutako konpromisoen zehaztapen ekonomikoa dakarte. Hauek dira lehentasunezko ildoak:

- Justizia Soziala
- Feminismoa
- Geltokiko lurzorua eta galdeketa
- Tokiko merkataritza eta enplegua sustatzea
- Aire, ingurumena eta energia berri-energiak
- Auzoak
- Osasuna eta kirola
- Euskara eta kultura
- Gune publikoa hobetzea
- Hezkuntza
- Mugikortasuna
- Gardentasuna, hurbiltasuna eta parte-hartzea

Gure helburua da neurriak baliatzea eta garatzea Durango herria pertsonentzat eta pertsonekin eraikitzeko. Horrexegatik, 2023ko aurrekontu hauek urrats bat gehiago dira eredu sozialago bat lortzeko ibilbidean.

Esan bezala, 2023ko aurrekontuak jarraian aipatzen diren esparru sozialak indartzea dute xede:

- Adineko pertsonak: Egitarau berriak prestatu ditugu indarra entrenatzeko eta psikoestimulazioa lantzeko.
- Inklusio soziala: Programa berri bat gazteen osasun mentalaren inguruan.
- Garapenerako lankidetzak: Diru-partida handitu egin da eta hitzarmenak diseinatu dira ondorengo lankidetzak-proiektuak garatzeko: Hamadako Izarrak, Río de Oro eta Euskal Fundazioa.
- Berdintasuna: Programa berri bat emakumei laguntza emateko.
- Enplegua: Handitu egin ditugu kontratazioarako laguntzak.
- Hezkuntza: Inbertsioak egingo dira Julene Azpeitia Haurreskolan eta Oinarrizko Lanbide Heziketa Udal Institutuan, instalazioak hobetzeko eta ikastetxe publikoen kalitatea areagotzeko. Landako eta Zabalarga eskoletako argindar- eta gas-gastuak gure gain hartuko ditugu. Era




DURANGO

Udala • Ayuntamiento

- berean, Hezkuntza Foroa, Eskola Kontseilua eta Hezkuntza alorreko estrategia bateratua sustatzen jarraituko dugu.
- Kultura: Oraintsu sortu ditugun programak sendotu egingo ditugu: Jolas Eguna, Dantzaro eta Plazara. Memoria lantzen jarraitzeko partida handitu egiten da, eta programa ekonomiko berria sortu dugu Plateruena kudeatzeko.
 - Gazteria: Gazteleku eta Ludoteka programak indartu egingo ditugu, eta Jolas libre gunea ere bai.
 - Euskera: Diru-laguntzen partida handitu egin da.
 - Jaiak: Diru-partida handitu egin da jaian deszentralizatzeko eta auzoetara heltzeko.
 - Kirola: eporte: Gazte kzk Kirola eta Durango Sariak programa berriak indartu egin dira.
 - Merkataritza: Durango Bonoak sendotu egin ditugu eta merkataritzako diru-laguntzak handitu. PERCO planaren ekintzak eta dinamizazioa bere horretan jarraituko dute, eta Azoka dinamizatzeko ekintzek ere bai.
 - Turismoa: Turismoa sustatzeko diru-partida handitu egin da, eta weba berriztatzea aurreikusten da.

2023ko inbertsioek ere sustatu egiten dute alde soziala eta kohesioa. Batetik, auzoak indartu egingo dira birmoldaketa integralak eginez Aramotz eta Antso Estegiz auzoetan. Eraikin publikoak sortu eta berreskuratuko dira auzoetako pertsonentzako gune erabilgarri gisa. Madalena plazako eta Andra Mariko elizpeko gune berreskuratuek ere bizitza soziala hauspotu dezatela nahi dugu. Bestetik, laugarren urtez eta herritarren parte-hartzeari esker, herritarrek eurek proposaturiko proiektuak sartuko ditugu aurrekontuetan. Esaterako: Tabirako haur parke akuatikoa eta haur parkeak Ibaizabalen, Otamotzenen eta San Fauston. Madalenako ermita ere hobetu egingo da erabilera sozial eta kulturala izateko, eta erdiguneko oinezkoen pasabideen argiztapena ere hobetu egingo da. Aurrekontu hauetan proiektu garrantzitsu eta estrategikoak dira Azoka plaza berriztatzea eta trenbidearen trazatua berreskuratzea. Era berean, autokontsumoaren aldeko apustua egiten dugu diru-partida berri bat jarritz eraikin publikoetan eguzki-panelak jartzeko, argindar-fakturan aurrezteko eta geroz eta kutsadura murrizteko. Honekin batera, bizikleta-sarea hobetzen jarraituko dugu.

Aurrekontu hauek politika hurbilaren isla dira: jendearen nahiak aintzat hartu eta prestutasunez erantzuten dietelako. Pertsonen Durango eratzea dute xede, Durango bihotzez.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

MEMORIA POLÍTICA PRESUPUESTOS 2023

Introducción Política


Los presupuestos del Ayuntamiento de Durango suponen la concreción económica de los compromisos adquiridos por el equipo de Gobierno, formado por EH Bildu y Herriaren Eskubidea, para la legislatura 2019-2023, cuyas líneas prioritarias son las siguientes:

- Justicia Social
- Feminismo
- Terrenos de la estación
- Fomento del comercio Local y empleo
- Aire, medioambiente y energías renovables
- Barrios
- Salud y deporte
- Euskera y Cultura
- Mejora del espacio público
- Educación
- Movilidad
- Transparencia, cercanía y participación

Con el objetivo de llevar a cabo las medidas que permitan avanzar hacia un Durango para las personas y junto con las personas, estos presupuestos de 2023 suponen un paso más en el avance hacia un modelo más social.

Los presupuestos de 2023 son unos presupuestos que impulsan las áreas sociales:

- Personas Mayores: Con nuevos programas como entrenamiento de fuerza y el taller de psicoestimulación.
- Inclusión Social: Un nuevo programa sobre la salud mental en jóvenes.
- Coop al Desarrollo: Aumento de la partida y convenios para impulsar los proyectos de cooperación de Hamadako Izarrak, Río de Oro y Euskal Fondoa.
- Igualdad: Un nuevo programa de acompañamiento a Mujeres.
- Empleo: Ampliamos la partida para las ayudas a la contratación.
- Educación: se impulsan inversiones en Julene Azpeitia Haurreskola y en el Instituto Municipal de Formación Profesional Básica, para mejorar las instalaciones y la calidad de los centros públicos. Se asumen los gastos de luz y gas de Landako y Zabalarra. Así mismo, continuamos impulsando los programas como el foro de Educación, el Consejo Escolar y la estrategia unificada de Educación, entre otros.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

.....

- Cultura: Se afianzan los programas que hemos venido creando como Jolas Eguna, Dantzaro y Plazara. Se impulsa un programa para seguir trabajando la Memoria, se amplía la partida de ayudas, se crea un nuevo programa económico para la gestión de Plateruena.
- Juventud: Se impulsan los programas de Gazteleku y Ludoteka, así como el Jolas libre guinea.
- Euskera: Se amplía la partida de ayudas.
- Jaiak: Se amplía la partida, para seguir impulsando por unas fiestas descentralizadas, que lleguen a los barrios.
- Deporte: Se impulsan los nuevos programas de Gazte kzK Kirola y los Durango Sariak.
- Comercio: Afianzamos los Durango Bonoak y ampliamos las subvenciones al comercio. Las acciones y dinamización del Plan PERCO se mantienen, así como las acciones de dinamización del Azoka.
- Turismo: Se amplía la partida para la promoción del turismo y se plantea renovar la web.

Las inversiones para 2023 también destacan por su vertiente social y cohesionadora, por un lado, por el impulso de los barrios con remodelaciones integrales: Aramotz y Antso Estegiz. La creación y recuperación de Edificios públicos en abandono como espacios para las personas y vecinas de los barrios, así como las plazas y parques renovados como Madalena, Pórtico de Santa Maria que impulsan la vida social. Y por otro lado, por cuarto año consecutivo gracias a la participación de la ciudadanía, en los presupuestos se incluyen proyectos que han sido propuestos por ellos y ellas. Tales como, Parque acuático infantil en Tabira, Parque infantil en Ibaizabal, Otamotzena y San Fausto. También la mejora de la ermita de Madalena para usos sociales y culturales, así como la mejora de la iluminación en los pasos de peatones en la zona centro. Proyectos estratégicos como la renovación de la plaza del Mercado o la recuperación del trazado del tren también forma parte de este presupuesto. Así mismo, también continuamos con la apuesta por el autoconsumo con una nueva partida para dotar a los edificios públicos de paneles solares que nos permitan ahorrar en la factura de la luz y ser menos contaminantes. Unido a esto continuamos con la mejora de la red ciclable

Estos presupuestos son la escenificación de una forma de entender la política trabajada desde la cercanía y que tiene oídos para escuchar y manos para trabajar. Unos presupuestos para crear el Durango de las personas y junto con las personas. Durango bihotzez.

Gobernu Taldea.